


# Txingudi badiako labarrak eta landak

Mikel Estonba



**B**idasoa ibaiaren estuarioa Higer eta Santa Ana lurmuturrez babesturiko badia zabal batez amaitzen da, iparmendebaleko ekaitz gogorretan migratzen ari diren hegaztiek geriza-baldintza ezinhobeak eskaintzen dizkielarik. Higer lurmuturraren aurrean Amuitze irla dugu, eta Santa Anaren aitzinean, Hendaia ezagun bihurtu duten Dunbarriak.

## Labarrak

**L**urmutur hauen bi aldeetara Euskal Herriko kostaren ezaugarri den labarretako paisajeak agertzen dira, Jaizkibel mendien kasuan, sarrera txikiez josita daude, bertan itsasoratzen diren erreken eragina dela eta. Hendaia-ko labarrean, ordea, Santa Ana lurmuturretik eskuinera, Loia izeneko badia agertzen da, harri-irla txiki batez itxita.

Geologiaren ikuspegitik ere, oso desberdinak dira Jaizkibel eta Hendaia-ko labarrak; lehenengoa



gehienbat harearri eta margaz osatuta bait dago, eta bigarrena, aldiz, karearri. Honek eragin handia dauka bai ingurune hauen morfologian (higadura-agentek ez bait dute eragin berdina bi harri-mota hauetan), eta bai hidrologian (Jaizkibelen, marga iragazkaitzezko geruzei esker, lurgaineko ur ugari

agertzen den bitartean, Hendaia-ko labarretan karearriaren ezaugarriak direla eta, lurpeko uren eta leizezuloen ugaritasuna nabaria da).

Zorionez, bai Hendaia-ko bai Hondarribiako harkaitz-kostak babestuta daude; lehenengoa "Abadia-ko gaztelua" izeneko erreserba naturalean kokatuta dagoelako eta

bigarrena, suteen arriskua oraindik nabaria izan arren, aurreko urtean Hondarribiako udalak, Jaizkibel mendia zaintzearen hartutako neurri esker.

Amaitzeko, labarretako ekosistemaren garrantzi ekologikoa kontutan hartuz, Txingudi ondoko labar hauen fauna eta landarediaren deskribapen txikia egitea komeni dela iruditu zait; bertan bait ditugu beste inon agertzen ez diren landare-espezie ugari eta beste tokitan gizakiaren eraginez desagertu den zenbait ekosistema.

Zentzu honetan txalogarriak dira instituzioek inguru hauek babestu eta mantentzeko hartutako erabakiak, eta Jaizkibel mendiaren kasuan beharrezkoa da bide horri ekitea, mendia hiriaren luzapen bihurtu nahi duten kolektiboen asmoetan erori gabe.

Labarretan bi alde nagusi bereiz ditzakegu: itsasotik gertuen dagoen

**Labar harritsu hauetan dagoen landaredi urria balio ekologiko handikoa da. *Crithmun maritimum* landarea dugu hauetako bat.**



labar harritsuak, eta ezponda eta erlaitzez osaturiko belar-aldapa. Lehenengoan, bizitzarako baldintzak oso gogorrak dira faktore desberdinak direla eta:


- Ozeanoaren eraginez, higadura oso handia da, landareek behar duten lurzorua eraketa galarazi egiten delarik.
- Bestalde, gazitasun handiko uhin zipristinek, landareei osmosi-arazoak sortzeaz gain dagoen, lurzoru urria ere eraman egiten dute.
- Haize gogorreko inguruak direnez, alde batetik ezinezkoa da altuera handiak landareak haztea, eta bestetik lehortasuna nabaria da; haizeak eta eguzkitzaren gogorrak ebapotranspirazioa azkartu egiten bait dute.

Faktore guzti hauen eraginez, labar harritsu hauetan dugun landaredi urria balio ekologiko handikoa da; eboluzioaren bidez, labar hauetako arteka eta arrailduretan bizitzeko moldaera desberdinak eskuratu bait dituzte. Ingurune hauetan bizi ohi diren landareak *Crithmun maritimum* eta *Plan-*

*tago maritima* belar-espezieetakoak dira, sarritan *Asplenium maritimum* iratze-espezieko aleak azaldu direlarik.

Gorago, aldapa eta itsasoaren eragina leuntzen diren heinean, landare-estaldura handiagotuz joaten da, lurzorua metaketa ere, errazten delako. Alderdi hauek *Festuca rubra* gramineo-espezieaz beteta daude, tartean beste zenbait espezie ere agertzen direlarik. Esate baterako: *Leucanthemum crassifolium*, *Anthyllis vulneraria*, *Daucus carota*, *Tamarix gallica* edo Euskal Herriko labarretako endemikoa den *Armeria euskadiensis* belar-espeziea. Eskualde hauetan agertu ohi da zuhaitz-itxura duen milazka frantsesa ere (*Tamarix gallica*), baldintza gogor hauetan bizitzeko eite handiko landare bakarra delarik.

Abadiako labarretan, karearriz osatuta egotearen ondorioz, landaredia aberatsagoa da, landareri nabarmenena *Helichrysum stoechas* belarra izanik.



### Itsas labarretako landaredia

1. *Crithmun maritimum*
2. *Plantago maritima*
3. *Asplenium marinum*
4. *Festuca rubra* subsp. *pruinosa*
5. *Daucus carota* subsp. *gummifer*
6. *Armeria euskadiensis*
7. *Allium ericetorum*
8. *Anthyllis vulneraria*
9. *Brassica oleracea* Var. *Sylvestris*

### Landak

**A**zkenik, aldapa desagertzen den aldean, bai Hendaiaiko Abadian, bai Jaizkibelen, itsas landetako ekosistemak aurkitzen ditugu. Izen honen zergatia, alderdi hauetan itsas bazterreko zenbait belar-espezie azaltzen duen landare-komunitate berezian datza. Inguru hauetan, itsasoaren eragina hutsaren hurrengo da eta haizea da bizitzarako baldintzak marka-

**Hontza zuriaren (Tyto alba) egagropilak (liseritu gabeko materia organikoa ahotik botatzen dute horrela).**



**Zirauna (Anguis fragilis), Jaizkibelgo herpetotasunaren adierazle.**



tzen dituen. Horregatik, toki hauetan azaldu den landaredia almodatxo itxurako ordezkapeneko sositza-komunitateez (basoa desagertzen denean agertzen diren landare-komunitateez) osatuta dago, hauen artean espezierik arruntenak otea (*Ulex europaeus*), otarra arrunta (*Genista hispanica*) eta ainarra burusoila (*Erica vagans*) izanik.

Landa hauen hedapenak eta giza presio moderatuak, garrantzi ekologiko handiko toki bihurtu dituzte alderdi hauek, bertan normalean nekez ikus daitezkeen animalia ugari agertzen delarik. Puntu honen barruan, aberastasun ornitologikoa aipatu behar da; landa hauetako otadietan habia egiten bait dute uda-txirtak (*Anthus trivialis*), tuntun arruntak (*Prunella modularis*), etze-txinboak (*Sylvia undata*), pitxartxarrak (*Saxicola sp.*), buztangorri ilunak (*Phoenicurus ochruros*), eta abarrek.

Hontza zuriak (*Tyto alba*), belatz handiak (*Falco peregrinus*) eta be-

latz gorriak (*Falco tinnunculus*), landako hegazti, karraskari eta narrastiak hondakutzen dituzte, malakar aldapatsuenetan habia eginez. Aipatzekoa da, bertan habia egin ez arren, arrano sugezalearen (*Circus gallicus*) presentzia nabaria; landa hauetako narrasti-ugaritasuna erakargarria bait da harri-pari honentzat.

Ugaztunei dagokienez, suteen ondorioz zuhaitz-estaldura desagert-

**Jaizkibelgo labarrak. Harearri eta margaz osatuta eta sarrera txikiz josita daude, bertan itsasoratzen diren erreken eraginez.**

tzeak espezie-dibertsitatea murriztu egin du, gaur egun gelditzen direnak azeria (*Vulpes vulpes*), lepazuria (*Martes martes*) eta katajineta arrunta (*Genetta genetta*) direlarik.



**Hontza zuriaren (Tyto alba) habia Jaizkibelgo harkaitz batean.**





**Hendaiako labarrak. Kararriz osatuta dago eta lurpeko uren eta leizezuloen ugaritasuna nabaria da.**

Aipamen berezia merezi du Jaizkibelgo herpetofaunak; bertan ditugun mikroklima eguzkitsua eta babestuei esker bait daude narrasti-komunitate aberatsak. Hauetan aipagarriak dira musker berdea (*Lacerta viridis*), sugandila iberiarra (*Podarcis hispanica*) edo Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*).

Landetako narrasti hauei Jaizkibelgo erreketako ekosistemetan aurki ditzakegunak gehitu behar

zaizkie; luzera txikiko erreka haue-tan goian aipatutakoak ezezik, ugari bait dira, apo arrunta (*Bufo bufo*), uhandre marmolairea (*Triturus marmoratus*) eta suge gorbata-duna (*Natrix natrix*) ere. Erreka

**Ugaztun baten gordelekua (sarreran ikus daitezke atzaparren arrastoak).**



hauen deskribapenaren ildotik, aipatzekoa da, ibai-aingirazko (*Anguilla anguilla*) aberastasuna ere; Jaizkibelgo ohizko bisitaria bait da.

Ez nuke artikulu hau Jaizkibelgo Zakur mutur eta Markotx inguruetan azaldu den kaio habiagilezko kolonia aipatu gabe amaitu nahi. Kolonia honetan bi kaio-mota agertu dira: kaio iluna (*Larus fuscus*) eta kaio hankahoria (*Larus cachinnans*).

Kolonia honen garrantzia bi arrazoitan oinarrituta dago:

- Europa eta Kantauri itsasoko kaio-kolonia gehienek elikadura-iturririk garrantzitsuena hondakin organikoak badira ere, Jaizkibelgoan, elikadura-dietaren proportziorik handiena zenbait karramarroren (*Liocarcinus puber* eta *Liocarcinus corrugatus*-en) bidez lortzen dute.
- Orain dela urte gutxi, kaio ilunaren nidifikazio-muga Britainiako penintsulan zegoen, baina Galiziako zenbait tokitan eta Jaizkibelgen aurkitutako koloniei esker, gaur egun muga gure latitudeetan dago.

Jaizkibelgen kasuan, gizakiaren eta suteen ondoriozko hondamena kontutan hartzekoa bada ere, biologi aberastasuna nabaria da, hau Jaizkibelgo ekosistemek gaitasun trofiko handiaren adierazlea izanik. Orain arte inguruarekiko adierazi ez dugun errespetua agertuko babiliz, hemendik urte gutxira, Jaizkibel paradisuia izatera itzuliko litza-teke. Saia gaitezten, inguru hauek hurrengo belaunaldientzat guri utzita baino hobeto uzten.